

nikus
ker.

Twitter eta Plataforma digitalak

42. TXOSTENA • 2023KO APIRILA



AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER.....	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK	3
3. EMAITZAK.....	4
3.3 PLATAFORMA DIGITALEI BURUZKO GALDERAK.....	4
3.4 TWITTERRI BURUZKO GALDERAK.....	9
4. LABURREAN	14

1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Egitasmo hau, 2028-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak (www.encuestafacil.com plataforma erabiliz), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2023ko apirilaren 17tik 23ra bitartean, twitter eta plataforma digitalei buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 1.687 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuaren hasieran, sare sozial desberdinen pisua zenbatekoa den zehazten da eta gero, twitter eta plataforma digitalen inguruko galderen emaitzak eskaintzen dira: irismena, koneksioa maiztasuna, erabilera desberdinak, jarraitzen diren perfilak eta balorazio orokorra, besteak beste.

3. EMAITZAK


3.3 PLATAFORMA DIGITALEI BURUZKO GALDERAK

Inkesta honetan plataforma digitalen erabileren ohiturei buruz galdetu da. Panelisten %28,5ek esan du astean 2-5 arteko maiztasunarekin erabiltzen dituela. Eguneroko erabilera aitortzen dutenak %18,6 dira. Portzentaiak oso bestelakoak dira inoiz ez (%8,7) edo eta egunero behin baino gehiagotan (%4,2) aipatu dutenen kasuan.

1. Irudia – Zenbatero erabiltzen dituzu plataforma digitalak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inoiz ez	146	8,7
Hilabetean behin	190	11,3
Astean behin	239	14,2
Astean birritan	247	14,6
Astean 2-5 aldiz	480	28,5
Egunero	314	18,6
Egunero behin baino gehiagotan	71	4,2
Guztira	1.687	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Konektatzen diren aldiro, zenbat denbora pasatzen duten galdetuta, panelisten %25ek esan dute, egunero ordubete eta ordu eta erdi arteko tartea ematen duela. Hala ere, plataforma digitalei ordubete azpiko denbora eskaintzen dietenen portzentaia da gehiengoa (%57). Ordu batetik gorako konsumoaldiak panelisten % 42,9k aipatu ditu.

2. Irudia – Zenbat denbora egoten zara plataformetan?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 minutu baino gutxiago	186	12,6
20-39 minutu artean	343	23,1
40-59 minutu artean	316	21,3
Ordubete - ordu eta erdi artean	371	25,0
Ordu eta erdi - bi ordu artean	138	9,3
Bi ordu baino gehiago	128	8,6
Guztira	1.482	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Hizkuntzari erreparatu ezker, inkestatuen gehiengoak gaztelania erabiltzen du plataforma digitalak kontsumitzerako orduan (%67,1). Askoz atzerago aurkitzen ditugu ingelesa aukeratu dutenen zenbatekoa (%28,2). Euskara aipatzen dutenen kopurua oso txikia da (%0,2).

3. Irudia – Zein hizkuntzatan ikusten dituzu streaming plataformak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Gaztelania	1.029	67,1
Ingelesa	432	28,2
Euskara	3	0,2
Frantsesa	1	0,1
Beste bat	69	4,5
Guztira	1.534	100,0


Iturria: Ikusiker, Applika+



Streaming bidez ikusitako azken edukia non gauzatu den galdetuta, %52,6k Netflix aukeratu du. Askoz ere atzerago aurkitzen ditugu Amazon Prime (%14) eta HBO (%7,2).

4. Irudia – Zein plataformatan ikusi duzu azken edukia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Netflix	806	52,6
HBO	111	7,2
Amazon Prime	215	14,0
Filmin	9	0,6
Movistar +	50	3,3
Euskaltel	12	0,8
Sky	4	0,3
Disney +	146	9,5
Dazn	17	1,1
Rakuten TV	3	0,2
Anime FLV	68	4,4
Beste bat	92	6,0
Guztira	1.533	100,0




Streaming bidez ikusitako azken edukia zein aparailutan egin duten galdetu zaie panelistei. %40k esan du internetera konektatutako telebista baten bitartez ikusi duela azken eduki hori. Beste %30,5ek ordenagailu eramangarria aipatu du, eta soilik %12,8k mugikorra aukeratu du.

5. Irudia – Streaming bidez ikusitako azken edukia zein aparailutan ikusi duzu?

Aparailua	Erantzunak	Porzentaia (%)
Internetera konektatutako telebista	613	40,0
Ordenagailu eramangarria	468	30,5
Mugikorra	196	12,8
Tableta	132	8,6
Mahaiko ordenagailua	99	6,5
Bideo-kontsola	5	0,3
Beste bat	20	1,3
Guztira	1.533	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Azkenik, plataforma digitalei puntuazio bat eman diezaioten eskatu zaie panelistei, eta 0 eta 10 arteko balorazio taula bat eskaini zaie. Orokorrean, oso puntuazio altuak jaso dira; %33,6k, 8ko puntuazioa aukeratu dute, %18,7k, 9koa, eta %12,8k, 10koa. Batezbesteko puntuazioa, 7,8 izan da.

6. Irudia – Zenbat gustatzen zaizu streaming plataformak erabiltzea?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10	195	12,8
9	285	18,7
8	511	33,6
7	297	19,5
6	91	6,0
5	91	6,0
4	10	0,7
3	19	1,2
2	15	1,0
1	7	0,5
0	1	0,1
Guztira	1.522	100,0
Batezbestekoa (0-10)	7,8	

Iturria: Ikusiker, Applika+




3.4 TWITTERRI BURUZKO GALDERAK

Amaitzeko, Twitterri buruzko galdera batzuk egin dira. Lehenengo eta behin, panelistei Twitter konturik duen galdetu zaie. %38k esan du ez duela konturik plataforma honetan, aldiz, %29,6k kontu pribatua dauka eta %25,4k publikoa.

7. Irudia – Badaukazu Twitter konturik?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez daukat konturik twitterren	640	38,0
Kontu pribatua daukat	498	29,6
Kontu publikoa daukat	428	25,4
Badut kontua baina ez dakit nolakoa den	118	7,0
Guztira	1.684	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Ondoren, erabilera ohiturei buruz galdetu da. Zenbateko maiztasunarekin konektatzen diren jakin nahi izan da. %45,9 ez da inoiz sartzen. %15,4k eguneroko frekuentzia aipatu du, eta %10,9k astean 2-5 arteko maiztasunarekin konektatzen dela adierazi du.

8. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Twitter?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inoiz ez	775	45,9
Hilean behin	153	9,1
Astean behin	138	8,2
2-5 aldiz astean	184	10,9
Egunero	260	15,4
Egunean behin baino gehiagotan	177	10,5
Guztira	1.687	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Behin konektatu, Twitteri zenbat denbora eskaintzen dioten galdetu da. %48,8k 20 minutu baino gutxiagoko tartea aitortu du. 20-39 minutu arteko koneksioaldiak panelisten %28,3k aipatu ditu. Ordubetetik gorako tartetean, inkestatuen %13,3 aurkitzen da.

9. Irudia – Zenbat denbora egoten zara konektatua?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 minutu baino gutxiago	424	48,8
20-39 minutu artean	246	28,3
40-59 minutu artean	83	9,6
Ordubete - ordu eta erdi artean	66	7,6
Ordu eta erdi - bi ordu artean	25	2,9
Bi ordu baino gehiago	24	2,8
Guztira	868	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Twitterren sartzeko erabiltzen duten aparailuz galdetu zaie segidan. Ia ehuneko osoak telefono mugikorra aipatu du (%95,5). Bigarren gailurik errepikatuen ordenagailu eramangarria izan da, %1,7k aukeratua.

10.Irudia - Zein gailu erabiltzen duzu Twitterren sartzeko?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Telefono mugikorra	867	95,5
Tableta	8	0,9
Ordenagailu eramangarria	15	1,7
Internetera konektutako telebista	3	0,3
Mahaiko ordenagailua	13	1,4
Bideo- kotsola	2	0,2
Guztira	908	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



Ondoren, twitterren kontsumitzen dituzten edukiak zein hizkuntzetan dauden galdetuta, gaztelania aipatzen dute gehien (%80,7). Jarraian, ingelesezko edukiak nabarmentzen dira (%9,4), eta azkenik euskarazkoak (%8,8).

11.Irudia – Zein hizkuntzetan irakurtzen dituzu Twitterreko edukiak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Gaztelania	733	80,7
Ingelesa	85	9,4
Euskara	80	8,8
Beste bat	10	1,1
Guztira	908	100,0


Iturria: Ikusiker, Applika+

Twitterren gehien jarraitzen dituzten gai edo kategorien inguruko galdera luzatu zaie segidan. %29k “komedia, memeak eta parodia” sailkapeneko edukiak aipatu ditu. %15,1ek “gizarteko gaiak edo pertsonaiak” nabarmendu ditu eta %11,5ek “albisteak eta politika” aukeratu ditu.

12.Irudia – Zein da Twitterren gehien jarraitzen duzun gaia edo kategoria?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Komedia, memeak eta parodia	277	29,0
Gizarteko gaiak eta pertsonak	144	15,1
Albisteak eta politika	110	11,5
Kirol mundua	91	9,5
Futbola	79	8,3
Famatuak, celebrityak...	61	6,4
Musika	53	5,6
Artea, kultura...	40	4,2
Zinea eta serieak	39	4,1
Makilajea eta moda	7	0,7
Ariketa fisikoa	3	0,3
Ekonomia	1	0,1
Beste bat	49	5,1
Guztira	954	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



Azkenik, Twitter plataformari puntuazio bat emateko eskatu diegu panelistei. 0 eta 10 bitarteko balorazio taula eskaini zaie. %46k, 6 eta 7 arteko nota eman dio. Batezbesteko puntuazioa 6,8 izan da.

13.Irudia – Zein nota jarriko zenioke Twitterri?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10	48	5,4
9	104	11,7
8	189	21,2
7	221	24,8
6	130	14,6
5	110	12,3
4	35	3,9
3	23	2,6
2	14	1,6
1	13	1,5
0	5	0,6
Guztira	892	100,0
Batezbestekoa (0-10)	6,8	

Iturria: Ikusiker, Applika+



4. LABURREAN

- Panelkideen %28,5ek astean 2-5 arteko maiztasunarekin erabiltzen ditu plataforma digitalak. Eguneroko erabilera %18,6k egiten du, aldiz, %8,7 ez da inoiz konektatzen.
- Konektatzen diren aldiro, %25ek ordubete eta ordu eta erdi arteko tartea pasatzen dute plataformetan. Hala ere, ordubete azpiko denbora eskaintzen dietenen portzentajea da nagusi (%57).
- Hizkuntzari erreparatuta, gehiengoak gaztelaniazko edukiak kontsumitzen ditu (%67,1). Euskara aukeratu dutenen kopurua oso txikia da (%0,2).
- %40k internetera konektatutako telebista erabiltzen du plataforma digitaletako edukiak ikusteko.
- Panelkideek batez beste, 7,8ko nota eman diete plataforma digitalei.
- Inkestatuen %38k ez du konturik Twitterren., aldiz, %29,6k kontu pribatua dauka eta %25,4k publikoa.
- %45,9 ez da Twiterrera inoiz konektatzen, aldiz, %15,4 egunero sartzen da. %48,8k 20 minutu baino gutxiagoko tartean konektatzen da plataformara. Panelkideen %13,3k ordubetetik gorako koneksioaldia zaio ohikoena.
- Ia ehuneko ehunak telefono mugikorra erabiltzen du Twiterrera konektatzeko (%95,5), eta %80,7k gaztelaniaz kontsumitzen ditu plataformako edukiak.
- Twitterren gehien jarraitzen dituzten gai edo kategoriei dagokienez, %29k “komedia, memeak eta parodia” aipatu ditu. %15,1ek “gizarteko gaiak edo pertsonaiak” nabarmendu ditu eta %11,5ek “albisteak eta politika” edukiak aukeratu ditu.
- Orohar, inkestatuek Twitterri ematen dioten batezbesteko puntuazioa 6,8 da.